



Bizipoz sozio kulturala

GURE PROIEKTUA

Misioa: Durangon kokatuta dagoen hirugarren adinekoen aisialdiko zentro sozio kultural bat gara; bertan publiko guztientzako kafetegi-jatetxe bat izateaz gain nagusientzako ekintza ezberdinak antolatzen ditugu egunero beraiantzako egokituta. Helburua beraien bizitza zoriotsuagoa egitea da, konpainia onean eta behar dituzten atentzio guztiak eskainiz; bakardadea eta asperraldiak ekidituz, eta gizarte hobe bat eraikiz.

Ikusmira: Erreferentziazko zentro bat izatea Euskal Herri mailan, hirugarren adinekoen bizitza kalitatea hobetzea, eta gizarte hobego bat eraikitzea. Gure helburua zentroa hobetzea izango da, eta lanpostu berriak sortzea, soldata duin batzuen truke.

SARRERA

Proiektu honen egileak, Marta, Moha, Irene eta Lucia gara.

Adinekoen %22,9 bakarrik bizi dira Espainian. Joera hori areagotu egiten da hainbat arrazoirengatik, eta adinekoen osasunari eta ongizateari eragin diezaioke. Gizon gehienak bikotekidearekin edo pertsona gehiagorekin bizi dira, eta %14,7 bakarrik bizi dira bakarrik. Emakumeen kasuan, berriz, %29,3 bakarrik bizi da: erdiak baino gutxiago konpainian bizi dira.



Eta zergatik uste dugun proiektu hau bideragarria dela:

- Kaudimen handiko biztanleria da... hau da bititza osoan lanean egon dira eta dirua aurreztu dute.
- 2. munduaren gerraren ostean 'baby boom' a egon zen eta gaur egun biztanleria hori zahartzarora heldu da. Urtez urte portzentaia hau handitzen joango da aurreikuspenen arabera.
- Hirugarren adineko senitartekoak sarritan ezin dira beraiekin arduratu.
- Bizitzaren etapa honetan heldzerakoan behar izan asko sortzen dira; psikomotrizitate arazoak, adimen arazoak, segurtasun falta...
- Ikusmira: Erreferentziazko zentru bat izatea Euskal Herri mailan, hirugarren adinekoen bititza kalitatea hobetzea, eta gizarte hobeago bat eraikitzea. Gure helburua zentrua hobetzea izango da, eta lanpostu berriak sortzea, soldata duin batzuen truke.

Arazo guzti hauei aurre egiteko gure proiektua martxan jartzea pentsatu dugu.

Zahartzaroan bakarrik bizitzearen ondorioetako bat egunerokoan moldatzeko zailtasuna eta egoera horrek osasun fisikoan eta, batez ere, adimen osasunean izan dezakeen eragina da. Gizonezkoak baino emakume gehiago dago arazo horretan, eta, kasu askotan, adinekoentzako egoitza batean sartzea izaten da irtenbidea.

Hala ere, 15 urtean, Espainian 64 urtetik gorako 12,4 milioi pertsona egongo dira, gaur egun baino 3,4 milioi gehiago (%38,1eko hazkundera). Horrela, 65 urtetik gorakoak, gaur egun biztanleria osoaren %19,2 direnak, 2033an %25,2ra iritsiko dira.



